



SORTZAILEAK: YOUTUBE

SORTZAILEAK: YOUTUBE

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei Youtuben sortzen dituzten edukiei buruz galdetu diegu, zehazki. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkorrean eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.


Txosten honetan aurkitzen dira 2021eko maiatzaren 3tik 8ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen Youtuben sortzeko eta erabiltzeko gazteek dituzten ohiturei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 858 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

4. YOUTUBE

Youtuberi dagokionez, inkestatuen % 13,7k noizbait bideoen bat edo zuzenekoren bat egin izan du.

1. Irudia – Youtuben edukiak ikusteaz gain, igo al duzu inoiz bideorik edo egin duzu inoiz zuzenkorik??


Youtuben, igo al duzu inoiz bideorik edo egin duzu inoiz zuzenkorik?



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Hala ere, jarduerarik ohikoena Youtuben beste erabiltzaileek igotako edukiak ikustea da: inkestaturen % 36,5ek egunero behin baino gehiagotan egiten du eta beste % 31,7k egunero edo ia egunero. Bigarren jarduerarik ohikoena bideoetan “atsegin dut” edo “ez dut atsegin” ematea da, ia erdiek astean behin baino gehiagotan egiten baitute (% 46,0k). Beste lau aukerak, interakzio handiagoa dakartenak, oso gutxitan egiten dira (hamarretik zortzik edo gehiagok ez ditu egiten): iruzkinak idatzi, norbere bideoak igo, zuzenekoak egin edo beste norbaiten bideoak igo.


2. Irudia – Zein maiztasunarekin egiten diren ekintza batzuk Youtuben



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtubera bideoak igotzen dituztenen artean, kasuen % 60,4n, aurretik ondo pentsatutako edukiak grabatu eta editatzen dira. Gutxi dira gidoi gabe ikusten dutena eta gertatzen zaiena grabatu, editatu eta igotzen dutenak (% 6,6), eta baita beste nonbaitetik lortutako edukiak editatu eta igotzen dituztenak ere (% 4,7). “Bestelako” aukeretan kokatzen dira erantzuleen % 28,3.


3. Irudia – Adierazi Youtubera igotzen dituzun edukiak nola sortzen dituzun NAGUSIKI:



Iturria: Ikusiker Applika +

Gehien sortzen den eduki motaren barruan, erdiek "bestelako" edukiak aipatu dituzte. % 9,4k gamer estiloko bideoak egiten ditu, % 8,5ak vlogak eta umorezko bideoak, % 6,6k tutorialak eta % 5,7k kantuen bertsoak eta kantu propioak. Hortik aurrerako kategoria bakoitzeko jaso den erantzun kopurua ez da % 3ra iristen.


4. Irudia – Youtuberako sortzen dituzun bideo eta eduki horien artean, zein da gehien sortzen duzun eduki mota?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, % 45,8k beti gaztelaniaz sortzen dituz edukiak, % 10,3k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago eta % 18,7k euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean gehiago. % 12,1ek sortzen dituz euskaraz beti edukiak eta % 5,6k euskaraz gehiago; hau da, euskararako joera dutenak % 17,7 dira.


5. Irudia – Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua du euskarak Youtuberako sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Bideoak grabatzen eta editatzen, ia hamarretik seik, beren kabuz ikasi zuten. Eskola, institutua edo unibertsitatea % 20,6k aipatzen du eta %15,0ek bestelako bideoak.

6. Irudia – Zein da bideoak grabatu eta editatzen ikasteko zure sistema nagusia?



Iturria: Ikusiker Applika +

Nola aipatu txosten hau:

NOR Ikerketa Taldea (2021). "Sortzaileak: Youtube". Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 25. Txostena. 2021eko maiatza. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU.
<http://www.ikusiker.eus>